

Euskal AEko ondasunen esportazioak % 1,3 egin du gora 2019ko irailean

2019ko lehen bederatzi hiletan, esportazioek % 1,3 egin dute atzera, nahiz eta merkataritza-saldoa positiboa izan zen, 3.729 milioi euro ingurukoa

Euskadiko **ondasunen esportazioek** % 1,34ko gorakada izan zuten 2019ko irailean urte arteko tasan, EUSTATEk emandako datuen arabera. 2.134 milioi euro izan ziren eta, aurreko urteko hil berean, 2.107 milioi. Ondasun *energetikoen* esportazioak % 37,1 hasi ziren, eta ondasun *ez-energetikoenak*, berriz, % 2,0 jaitsi.

Bizkaia da esportazioen hazkunde handiena izan duen lurralde historikoa: % 10ekoa; Gipuzkoan, esportazioak % 2,9 jaitsi dira, eta, Araban % 4,4.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2019 Iraila

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Iraila			Iraila		
	2018	2019	Δ %	2018	2019	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	2.106.800	2.134.209	1,3	1.789.932	1.627.648	-9,1
PRODUKTU ENERGETIKOAK	175.995	241.339	37,1	425.356	442.666	4,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.930.804	1.892.870	-2,0	1.364.576	1.184.982	-13,2
URTEKO METATUA	19.115.628	18.875.420	-1,3	15.027.403	15.146.899	0,8
PRODUKTU ENERGETIKOAK	1.809.273	1.497.790	-17,2	4.196.955	4.076.080	-2,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	17.306.355	17.377.630	0,4	10.830.448	11.070.819	2,2
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	649.706	621.161	-4,4	383.623	328.357	-14,4
URTEKO METATUA	5.778.817	5.361.004	-7,2	3.242.659	3.060.708	-5,6
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	763.817	839.933	10,0	1.060.875	943.586	-11,1
URTEKO METATUA	7.738.078	7.171.470	-7,3	8.790.274	8.838.833	0,6
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	693.277	673.115	-2,9	345.434	355.705	3,0
URTEKO METATUA	5.598.733	6.342.946	13,3	2.994.469	3.247.358	8,4

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)


Euskadiko **ondasunen inportazioek** % 9,1eko beherakada izan zuten, eta ia 1.628 milioi euroko zenbatekoa lortu zuten. Inportazio *energetikoen* % 4,1 egin zuten gora eta *ez-energetikoen* % 13,2 egin zuten behera.

Lurralde-mailan, Gipuzkoako inportazioek % 3,0 egin zuten gora, Bizkaikoek % 11,1 behera eta Arabakoek ere % 14,4 behera

Jarduera-adar esportatzaileak (A86) aztertuta, beherakada ikusten da pisu gehien duten bietan: *Motor-ibilgailuek* % 8,9 egin dute behera eta *Erabilera orokorreko makineriak* % 20,4. Ordea, nabaria da tradizioan garrantzitsua izan den jarduera-adar batek nola egin duen gora, alegia, *Kokeriek eta petrolio fintzeak* (% 50,1). Hazkuntza hori esanguratsua da, baina are esanguratsuagoa da *Beste garraio-material batena* (% 116,5era iritsi da).

Xehetasunak aztertuta egiaztatzen da irailean hamar zerga-partida nagusiek esportazioen % 47,5 kontzentratu zutela, eta haien balioa 1.013,4 milioi eurokoa izan zela. Nabarmentzekoak dira honako hauek: 10 pertsonatik beherako turismoak (% 2,3), Petrolioaren olio finduak (% 66,9), Automobilentzako zati eta osagarriak (-% 8,1), Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako (% 285,6), Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak (-% 26,4), eta Kautxuzko pneumatiko berriak (-% 2,4). Ikusten denez, haien artean alde handia dago aurreko urtearekin erkatuta.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Hil honetan, bost herrialde hauek dira gure bezero nagusiak: Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Estatu Batuak eta Belgika. Haiek dira Euskal AEko esportazio guztien % 54,7ren hartzailleak. Haietako lau EB-28koak dira; hain zuzen, erkidego horretan biltzen da gure esportazioen % 72,1 (1.538,7 milioi).

Jarduera-adarrak inportazioen arabera (A86) aztertuta ikusten da garrantzitsuen *Erauzketa- eta petrolio-industriak* (guztizkoaren % 27,2) dela; % 5,9ko igoera izan du, aurreko urteko hil beraren aldean. Hala ere, haren ondoren garrantziaren arabera hurrenkeran dauden partidek behera egin dute, besteak beste: *Siderurgiako produktuak* (-% 26,4), *Motor-ibilgailuak* (-% 19,6), eta *Erabilera orokorreko makineria* (-% 1,4)

2019. URTEKO LEHEN BEDERATZI HILETAKO METATUA

Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen kanpo-merkataritzak 3.728,5 milioi euroko saldo positiboa izan du, 2019ko lehen bederatzi hilabeteetako metatuan

2019ko lehen bederatzi hilabeteetan, Euskadiko esportazioek % 1,3ko beherakada izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean, alegia, 240,2 milioi euro gutxiago.

Bizkaiko esportazioek guztira 7.171,5 milioi metatua izan dute eta, beraz, % 7,3ko beherakada. Araban, beherakada oso antzekoa da, eta % 7,2koa da. Hala ere, Gipuzkoan % 13,3ko hazkuntza egon da.

Produktu-mota aintzat hartuta, “*Produktu energetiko*”etan zentratzen da aurretik aipatutako beherakada (311,5 milioi gutxiago).

Sei jarduera-adarrek esportazioen % 64,3 dute, baina portaera bestelakoa da; beraz, *Erabilera orokorreko makineriak* (% 1,8) eta *Beste garraio-material batek* (% 120,5) gora egin dute, baina *Motor-ibilgailuek* (44.342,7 milioi eta guttizkoaren % 23,0) % 10,7 egin dute behera, bai eta *Siderurgiak* (-% 8,1), *Artikulu metalikoek* (-% 4,8) eta *Kokeriek eta petrolio fintzeak* (-% 22,0) ere.

Aldiko ranking esportatzailean, Frantzia da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztiaren % 15,7ren hartzailea. Frantziaren ondoren, honako hauek daude rankingean, hurrenkera honi jarraikiz: Alemania (% 15,6), Erresuma Batua (% 9,3) eta Estatu Batuak (% 6,9). Horrela, lau herrialdeen artean euskal esportazioen % 47,5en hartzaile dira.

Euskadirako inportazioen metatua, aintzat hartutako aldian, 15.146,9 milioi eurokoa da. Zifra hori urte artean erkatuta, 2018ko aldi berean erregistratutakoa baino 119,5 milioi handiagoa dela ikusten dugu. Gipuzkoa da hazkuntza inportatzaile horri ekarpen handiena egiten dion lurraldea; izan ere, 252,9 milioi ekarpena egiten dio guttizkoari.

“Produktu energetikoen” inportazioak % 2,9 egin du behera, eta “Produktu ez-energetikoenak”, berriz, % 2,2 egin du gora.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2019ko lehen bederatzi hiletan, 3.728,5 milioi euroko saldo positiboa izan du, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 359,7 milioi gutxiago; alegia, estaldura-tasa % 124,6koa izan da. Tasa hori 100etik gora dago (inportatzen duguna baino gehiago esportatzen dugu), EB-28ko ia herrialde guztietan, Irlanda, Luxenburgo, Suedia eta Finlandia salbu.

AERONAUTIKAREN SEKTOREA EUSKAL AE-N

“Aeronautika”ren sektorea EUROSTATen nomenklatura konbinatuaren 88. kapituluak jaso du, “aireontzi, espazio-ibilgailu eta haren zatiak” izendapenarekin; pasa den 2018. urtean, euskal esportazio guztien % 0,64 izan zen, eta esportazio-balioa 163,3 milioi eurokoa izan zen.

2019. urtean, orain arte, 127 milioi euro gainditu dira, eta 1998tik 100 milioitik gorako joerari eutsi zaio; alegia, esportatutako guztiaren % 0,95, batez beste.

Ondasun aeronautikoak esportatzeaz gainera, inportatu ere inportatzen ditugu, baina saldoa beti izan da positiboa, erregistroak ditugunetik; saldo hori 113,3 milioietara iritsi zen, pasa den ekitaldian. Sektore hori inportazioen % 0,25en hartzaile da, eta, aipatu dugunez, esportazioen % 0,95ena.

Esportazioak desagregazio-maila gorenean aztertuta, esango dugu haiek hiru produktutan zentratu direla beti:

- *Hegazkin eta helikopteroen zatiak, helizeak, errotoreak, lurperatzeko trenak eta haren zatiak* izan ezik; sektorearen esportazioen ia % 90. 2018an, 142,4 milioi euro esportatu ziren, eta, 2019ko urtariletik irailera, dagoeneko 117,2 milioi. 1990etik 2019ko irailera, produktu horren 3.851,9 milioi esportatu dira.

- *Aireontzien beste zati batzuk* historikoki sektorean bigarren posizioan egon da, eta, 1990etik, batez besteko pisua % 9,8koa izan da. Azken urtean, ehuneko hori % 12koa izan da, eta, eurotan, 19,7 milioikoa. 2019ko irailera arte, 9,8 milioitara iritsi dira. 429,1 milioi metatu dira 1990etik.
- *Komunikazio-sateliteen zatiak*, sektorearen % 0,2 baino ez dena. 2018an, 1,2 milioi izan ziren, eta, 2019an, orain arte, 99 mila eurotara iritsi da. 8,7 milioi baino ez dira metatu

Sektore horren barruan, halaber, esportazioetarako aipatutako produktuei dagozkien inportazioak egiten dira, eta garrantzia-maila berarekin; hala, 2018an, lehen produktuaren 43,2 milioi inportatu dira, bigarrenaren 5,6 eta hirugarrenaren 0,4.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62